

# GABONETAKO AGENDA 2021

ORARSO BIDASOKO  
**HITZA**

[BIDASOA.HITZA.EUS](http://BIDASOA.HITZA.EUS)  
[OARSOALDEA.HITZA.EUS](http://OARSOALDEA.HITZA.EUS)

— Allende Arnaiz

**Irun.** Izotz pista erraldoia jarri dute Ficobaren atarian // **iv**

**Oarsoaldea.** Gabonak, museoetara bisita egiteko aroa // **v**

**Oarso Bidasoa.** Urtea bukatzeko eta berria hasteko, lasterketak // **vi**

**Oarso Bidasoa.** Tokiko dendetan erosketak egiteko, abantailak // **vii**

**Hondarribia.** Jaiotzak jarri dituzte herriko hamahiru gunetan // **viii**

**Lezo.** Euskal Liburu eta Disko Azoka, azken txanpan // **ix**



OARSO BIDASOKO  
HITZAren  
otarre  
berezia!



Sari  
Paregabek  
ditugu  
zuretzat!

Parte hartzaile  
guztien artean:

- Errigorako kaxa eder bat
- Gaztelu Ostatuan lau lagunentzako asteburuko dastatze menua

Parte hartzen duten  
HITZAkide eta harpideen artean:

- Aire Berria ostatu etxean bi lagunentzako asteburu pasa

Parte hartzeko epea:  
abendua 17 - urtarrilak 9 bitarte

Nola parte hartu?

[bidaso.hitza.eus/gabonak-2021/](https://bidaso.hitza.eus/gabonak-2021/)  
[oarsoaldea.hitza.eus/gabonak-2021/](https://oarsoaldea.hitza.eus/gabonak-2021/)

• OARSO BIDASOKO •

**HITZA**

# Badaude aukerak

• OARSO BIDASOKO •  
**HITZA**

Argitaratzailea:  
**Oiartzualdeko Hedabideak EM**  
Zuzendaria:  
**Urko Etxebeste**  
Sustapen arduraduna:  
**Beñat Trigo Perez**  
Testuak:  
**Erik Salazar**  
Produkzio arduraduna:  
**Allende Arnaiz Garmendia**  
Lege gordailua:  
**ISSN-0793-03**  
Egoitza:  
**Irun kalea 8, 20100**  
**Errenteria-Orereta**  
Telefona:  
**943 34 03 30**  
Webguneak:  
**oarsobidasoa.hitza.eus**  
**oarsoaldea.hitza.eus**  
**bidaso.hitza.eus**  
Posta elektronikoa:  
**oarsobidasoa@hitza.eus**  
Publizitatea:  
**Egoi Carrizo Uranga**  
Tel.: **647 354 254 - 943 34 03 30**  
Bezero arreta / harpidetza:  
**943 30 43 46 - harpidetza@hitza.eus**

**E**skualde aberatsak dira Oarsoaldea eta Bidasoa. Herri mugimenduen jardunean bai behintzat. Horren erakusleetako bat da aurtengo urte bukararako hainbat jarduera antolatu dituztela herri guztietako eragileek, gehienetan udalen laguntzarekin. Pandemia egoeratik, ordea, den-denak ezingo dira nahi edo behar bezala egin. Horren adierazlerik esanguratsuen San Tomas Egunarekin lotutako azokak eta jai giroko ekitaldiak izan dira: Oiartzunen era Hondarribian izan ezik, beste herri guztietan eragileek erabaki dute horiek bertan behera uztea.

## **Aurtengo Gabonetan iazkoetan baino egitarau osoagoak daude herriz herri. Hala ere, osasun egoerak hainbat jarduera baldintzatuko ditu**

Gabonetako agendari lotutako HITZA-ren gehigarri honetan saiatu gara datozen egunetan egin daitezkeen planen berri ematen. Jarduera asko eremu estalietan (antzokiak, kultur aretoak...) gozatzeko modukoak dira, baina badira familia giroan eta aterian egin daitezkeenak. Ohiko Olentzeroren eta Mari Domingiren desfileez gain (herri batzuetan ez da kalejirarik izango, eta egiten direnetako askotan osasun egoerari

lotutako neurriak hartuko dituzte), badaude kalean gozatu beharreko ekitaldiak.

Herriz herrikako berezitasunetan sakonduz, nabarmentzekoa da Errenteria Oreretako Gabon Kantu Sariketak (hilaren 26an da) 75 urte beteko dituela aurtten, Ereintzaren eskutik bertako giroari euskarazko kutsua emanez. Irunen, berriz, kale animazioari eutsi diote inoizko kaleko argi koloredun kopuru handiena jarriz, bola erraldoia eta txirrista handia auzoz auzo sakabanatuz, edo Ficoba inguruan izotz pista zabala jarriz. Hondarribian, berriz, berezitasunetakoa da hamahiru guntan beste hainbeste jaiotza atondu dituztela, paseo antzekoa proposatuz.

Lezon gaur arte dago zabalik Euskal Liburu eta Disko Azoka, Pasaian Itsas Mendiko Txistulariek Donibaneko plaza hartuko dute hilaren 26an berriz ere, eta Oiartzunen gazte sortzaileak animatu egin dira zer eta nola egiten duten azaltzera.

Aurrekoak Oarso Bidasoko Gabonen egitarauaren lagin txiki-txikiak besterik ez dira. Datozen orrietan egun berezi hauetarako hainbat proposamen daude jasota. Ez dira denak, baina direnen artean aintzat hartzekoak dira. ✕

saldu, erosi,  
trukatu, oparitu  
... euskaraz!

iragarki laburrak .eus

Hemen *to online*



# Izotz pista handiena Irungo Ficobakoa da

Ficobaren kanpoaldean dago Irungo izotz pista. Asteburuetan batez ere jende asko joaten da bertara. **Erik Salazar**

**Irungo Udalak Ficoban antolatu duen izotz-pistak arrakasta handia izan du herritarren artean. Martxan jarri zen egunetik jendetza gerturatu da bertara patinatzen ondo pasatzeko.**

Irunen argi zuten aurtengo Gabonak bereziak izan behar zirela. Udalak antolatu dituen ekitaldi guztien artean bada bat benetan nabarmendu beharrekoa: izotz pista. Ficoban patinatzeke antolatu duten eremua Espainiako Estatuko handiena dela diote. Bisitariak 1.200 metro koadro inguru izango dituzte bere esku urtarrilaren 6ra arte.

Izotz pista erraldoi horretan patinatzeke etxeko txikiaren poza eragiten du batik bat. Umeen presentzia asteburuan somatu zen batez ere. Behin eskola orduak bukatuta ere askoz ohikoagoa izan da txikiak patinatzen ikustea astean zehar. Haien zat Gabonetako lehenengo oparia izan da. Irailetik abendura arte eskolan egindako lan guztiagatik merezi zuten saria da Ficobara gerturatzea.

Baina patinatzea ez da soilik umeen

kontua. Helduek ere esperentziaz gozatu nahi dute. Asteburuetan bikote ugari ikusten dira bertatik. «Semeek animatu gaituzte hona etortzera, eta azken momentuan ni neu ere animatu naiz probatzera», adierazi du ama gazte batek.

Txikiak badute pinguinoak eskuratzeko aukera. Ez benetako pinguinoak, noski. Gaietan esertzeko plastikozko aukitxoak dira, animalia formak dutenak. Horrela, oraindik patinatzeke abenturan abilezia ez duten txikiak izotz pistaz gozatu dute erabateko segurtasunean.

Pistaren beste aldean, bikote gazte bat dago patinak jantzen. Jarri bezain pronto agerian gelditu da nork egin behar duen irakasle rola eta nor izan behar den ikaslea. Momentuz, ikaslea ez da erori.

Lagun taldeak ere ikusten dira. Sarre-

ran daude, oraindik esperoan, izotz pistaz gozatzeko gogoekin. Batek patinak eskuratu ditu eta eserlekuan dago, oinetakoak kentzen. Izotz pistaren ideia ona dela, baina aurtengo kokalekuak joko kanpo hartu duela onartu du: «Zentroan askoz errazagoa zen oinez joateko, baina Ficobara etortzeko ere ez dago arazorik. Horri esker pista handiagoa bada, primeran».

Haren ondoan neska bat dago. Hark patinak jantzita ditu dagoeneko, eta lagunaren zain dago. Izotz pistaren tamainari buruz iritzia eman du. «Hasieran beldur ginen. Lehenengo egunetan gure lagun batzuk etorri ziren, eta esan zigiten pistaren zabalera ez zela hainbestekorako», jakinarazi du. Ahotsaren tonua berehala aldatu zaio horren zergatia eman duenean: «Badirudi oposizio bat zegoela egiteko, eta lekua behar zela; horregatik lehenengo egunetako pistaren tamaina txikiagoa zen».

Sarreraren prezioa 2 eurokoa da 13 urtetik beherakoentzat, eta 3koa gainontzeko pertsonentzat. ✕

**H**ainbat museo daude gurean, baina askotan ez dira oso ezagunak. Denbora faltagatik, edo bestelako arrazoiengatik, bertako museoek merezi duten bisita atzeratzen joaten da. Museoetako arduradunek badakite, eta horregatik, atzerriko bisitariez gain, bertakoak erakartzen saiatzen dira.

Pasai San Pedron hasita, Mater Ontzi Museoak eskaintzen dituen aktibitateak daude. Itsasontziak ohiko bisitez gain, bestelako ekintzak antolatu ditu Gabonetarako. Esaterako, hilaren 26koa: itsas hondakin bilketa alabortzan.

Pasai Donibanen ere bisitariak badute zer ikusi. Iaz egin zen moduan, parokiako arduradunek, Gipuzkoako Belenzaleen Elkartearekin batera, jaiotza atondu dute Bonantzako elizan. Bisitariak 10:00etatik 20:00ak arte izango dituzte irekita tenpluaren atek egunero.

## **Gabonetan museoetatuz gozatzeko aukera asko daude Oarsoaldean**

Bestetik, Errenteria-Oreretan erreferentzia bihurtu den Jantziaren Zentroan erakusketa berria ikusteko aukera izango dute herritarrek. Gipuzkoako, Zuberoako eta Bizkaiko baserritar jantziei buruzko erakusketa azaroaren 6an jarri zuten abian, eta urtarrilaren 2ra arte mantenduko da. Museoa asteburuetan irekita dago, larunbatetan goizez eta arratsaldez (11:00-14:00 eta 17:00-20:00), eta igande goizetan (12:00-14:00).

### **OIARTZUNGOAK**

Oiartzunek aukera zabala eskeintzen du, askotarikoa eta interes handikoa. Bertan, Arditurri, Luberrin eta Soinuena bisita daitezke.

Arditurriko meategiak Aiako Harrietako Parke Naturalean daude. Udan zehar oso ohikoa da pertsona ugari ikustea txangoak egiten. Naturaz gozatzeko gune bikaina da. Baina neguko tenperaturei aurre egiteko aukera badago; bertan, meategietan dagoen museoa bisitatzeko izan daiteke aukera onena. Museoa



San Pedroko Materrek hainbat jarduera proposatu ditu Gabonetarako. **Erik Salazar**

# **Pasaiatik Oiartzunera: museoen ibilbidea**

**Urtean zehar bisitatzeko ez diren museoak ikusteko aukera paregabea dago Gabonetan. Pasaiako Materretik hasita, Oiartzungo Arditurriraino heldu arte; museoek baterik den ibilbidea egitea izan daiteke Gabonetako planetako bat.**

ostiraletan, larunbatetan eta igandetan dago irekia, 10:00etatik 14:00ak arte.

Arditurriko museoa labor geldituko zaien bisitari horientzat, badago naturari eta inguruari buruzko ezagutza biribiltzea Luberrin. Ergoien auzoan kokatuta dagoen museoan geologia eta paleontologia dituzte ardatz. Museoaren ordutegia 09:30etatik 14:00ak artekoa, eta 16:00etatik 18:00ak artekoa da egunero; igandetan eta astelehenetan itxita izaten da.

Museoen ibilbidea bukatzeko, museo bitxiena: Soinuena. Bertan, mundu osoko 400 musika tresna baino gehiago daude erakusgai. Bisitatu nahi dutenek, asteartetik larunbatera egin dezakete goizean (10:00-14:00) zein arratsaldean (15:00-18:00).

Oarsoaldeko museoaren eskaintza anitza da, edozein adinetako pertsonentzat pentsatua. Nora joatea bisitarien esku dago. ✕





Oiartzungo hainbat eragile eta norbanakok parte hartu zuten Joanes Etxera lasterketaren aurkezpenean. Urtarrilaren 2an da proba. **I. Zarate**

# Urte zaharra bukatzeko, eta berria hasteko, izerdia

Hilaren 31n Hondarribiko eta Erreterria-Oreretako San Silbete lasterketak egingo dituzte. Urtarrilaren 2an, berriz, Joanes Etxera lehia Oiartzunen, eta 16an da Mitxintxolako Igoera Donibanen.

**K**lasiko dira dagoeneko herri lasterketak Oarsoaldean eta Hondarribia nahiz Irunen. Ehunka dira, milaka ez badira, horietan parte hartzen dutenak. Proba horietan berezienak urte bukaerakoak izan ohi dira, Gabon kutsua dutenak, eta zehazki San Silbestreak. Hala, 2021ari agur eta 2022ari ongiatorri esateko badaude lehiak, izerditzeko eta sasoi egokian izateko aukerak.

Hilaren 17an egin zuten Pasai Antxoko XI. Gabonetako Krosa. Era berean, Irungo Gabonetako Lasterketa hurrengo egunean egin zen, hilaren 18an. Horien ondoren, hurrengo biak 2021eko azken egunekoak dira: Hondarribiko nahiz Erreterria-Oreretako San Silbestre lasterketak.

Erreterria-Oreretakoa hilaren 31ko

16:15ean hasiko da Gamon Zumardi ondok. Bi aukera dituzte lasterkariak: 3,5 kilometroko bide motza egitea, edo 7ko luzea. Bien prezioa 12 eurokoa da, eta *rockthesport.com* plataforman eman daiteke izena hilaren 29ra arte.

Hondarribiko San Silbestera, berriz, 16:30ean hasiko da San Pedro kaletik. Sei kilometroko bidea du lasterketak,

## Bi San Silbestre daude, Hondarribian eta Erreterria-Oreretan

eta izen ematea Kirolprobak plataformaren webgunearen bitartez egin daiteke, 17 euroan. Elkartasun lasterketa da Hondarribikoa: jasoko duten diru etekin fibrosi kistikoa gaixotasuna dute-

nentzat bideratuko da. Hilaren 30ra arte dago Sport Mundik antolatzen duen proban izena emateko aukera.

## OIARTZUN ETA DONIBANE

Urtea hasi eta berehala, urtarrilaren 2an zehazki, Joanes Etxera herri lasterketa izango da Oiartzunen. Herriko presoaren aldeko aldarria egiteaz gain, urtea izerditan hasteko aukera izango da 11:00etan Done Eztebe plazatik hasiko den 6,5 kilometroko lasterketan (haurrena 10:30ean da). Dortsalak zortzi euroko prezioa du, eta apuntatzeko bi aukera daude: lehena aurrez aurre Elorsoro kiroldegian; bigarrena Herrikrosa plataformaren webgunean (hilaren 30era arte).

Jada urtarrilean ondo sartuta, Pasai Donibaneko Itsas Mendi elkarteak Mitxintxolako Igoeraren edizio berria prestatu du hil horretako 16rako (11:00). 3,4 kilometroko proba da, baina azken zatia maldan gorakoa. 5 euroko prezioa du izen emateak, Herrikrosa plataforman egin beharrekoa. ✕



Hilabete oso zailak izan dituzte atzetik Oarsoaldeko nahiz Irun eta Hondarribiko tokiko establezimenduek. Horietan gastua egiteko pizgarriak daude, Gabonetan ere etxe ondoan erosketak egiteko.

**K**oronabirusak eragindako kalteak gizartearen eta ekonomia-  
ren sektore askotan aski nabariak izan dira. Kaltetuak ugari dira. Horien artean daude tokian tokiko establezimenduak, izan denda, ostalaritza gune edo zerbitzu negozio. Beste hainbatek bezala, pandemiaren bilakarearen gorabeherak jasan dituzte horiek guztiak. Kalterik gehien izan dutenetakoak dira. Horregatik, Gabonei begira, etxe ondoan erosketak egitearen garrantzia ohartarazi dute bai establezimenduek (gehienetan herrietako merkatarien elkarten bitartez), bai eta udalek.

Lezon, esaterako, dozenaka izan dira Lezo Bona izeneko kanpainarekin bat egin duten merkataria. Denda horietan 3,5 euroko preziodun bona erositara, 5 euroko gastua egin ahal izango dute lezoarrek urtarilaren 6ra arte. Lezokoak merkataria elkartea eta bertako udala dira egitasmoaren sustatzaileak. Pasaian, Laurak Bat elkartearen ekimenez, 82 saski zozkatu dituzte Gabonetako kanpaina bereziarekin bat egin duten beste hainbeste establezimenduetan, bana gune bakoitzeko. Hilaren 22an egin ziren zozketak.

#### HONDARRIBIA, IRUN ETA ERRETERIA

Hondarribian, berriz, Gabonaldia izeneko kanpaina izango dute abian hilaren 27ra arte: bat egin duten 31 komertzioen artean, horietan erosketak egin dituztenentzat opari bana eman dute eguneko. Gainera, hilaren 27an, 31 denda horietako produktuak jasota dituen otarre handi-handi bat zozkatuko dute.

Irunen, berriz, udalak kaleko animazioari eman dio garrantzi berezia, uste baitu kaleko apaingarri eta giroarekin irundarrak tokikoan erostera aterako direla. Horretarako deia egin du udalak. Gainera, hiriko denda askotan Gabonei



Goiko irudian, Errenteria Bertakoa egitasmoa jendartera zabaltzeko bildu zirenekoa. Behekoan, Hondarribiko Gabonaldia kanpainaren aurkezpena. **Ikerne Zarate / HITZA**

## Etxe ondoan erosketak eginda, onura denentzat

lotutako hainbat abantaila eta deskontu lor ditzakete herritarrek.

Errenteria-Oreteran, berriz, Errenteria Bertakoa kanpaina diseinatu dute Errenkoalde eta udalak. Saltzaileen eta bezeroen arteko harremana indartzea du xede. Hilaren 20an, Errenkoalde 175 saski zozkatu zituen elkartearen barruko denda eta establezimenduetan erosketak egin zituztenen artean. ✕

**Gabonetan, hurbileko dendetan kontsumitzeko kanpainak egiten ari dira**





# Hondarribia, Jerusalem

Hondarribiko hamahiru lekutan ezarri ditu Ttopara elkarteak jaiotzak. Alde Zaharrean eta Portua auzoan daude. **Erik Salazar**

**Hamahiru jaiotza jarri dituzte Hondarribiko hainbat lekutan. Ttoparak ondare kulturala babestu nahi du, eta horretarako Gipuzkoako belenzaleen eta Hondarribiko merkatarien laguntza izan du.**

**E**kitaldi eta ekintza ugari bertan behera gelditu dira azken bi urteetan pandemia dela eta. Baina Hondarribian, egoerari buelta eman, eta alderdi positiboa bilatu nahi izan diote Ttoparako kideek. Joxe Mari Sanz elkarteko presidentearen esanetan, aspaldi pentsatu zuten jaiotzen erakusketa bat antolatzea. 2020ko martxoan, ordea, pandemia asmo horiek zapuzten saiatu zen.

Sanzek irtenbideak berehala bilatzen saiatu zirela gogorarazi du: «Erakusketa Arma Plazan antolatzea zen gure asmoa, baina pilaketak saihesteko jaiotzak sal-

tokietan jartzea erabaki genuen». Berehala jarri ziren harremanetan Gipuzkoako belenzaleekin eta Hondarribiko merkatariekin. Bi aldeek atsegin handiz hartu zuten Ttopararen proposamena.

Emaizta begi-bistakoa da. Iaz bederatzia jaiotza ipini zituzten herrian; aurten, berriz, hamahiru. Gehienak Portua auzoan edo Alde Zaharrean daude. San Pedro eta Zuloaga kaleetan daude Portuko jaiotza gehienak.

Alde zaharrean, aldiz, gutxiago daude, baina horietako bik ezinbesteko bisita merezi dute. Bata, Arma Plazako Carlos Varen paradorearen sarreran dagoena. Bestea, Kale Nagusiko parrokiaren dagoena. Biak dira herrian dauden handienak. Parrokiakoa elizako arduradunen lana da, baina Ttoparak ibilbidean txertatu nahi izan du.

## HELBURU ZEHATZA

Joxe Mari Sanzek argi adierazi du zein den haien helburua: «Azken urteetan globalizazioak moda berriak ekarri dizkigu: Aita Noel, Santa Claus eta bestela-

koak. Tokian tokiko ondare kulturala babestu nahi dugu honekin». Ttoparako kidearen arabera, ezin da ukatu jaiotzen ibilbideak onura handia ekartzen diela herriari zein merkataritzari.

Komertzioetan jarritako jaiotzak txikiagoak dira, diorama modukoak, eta erakuslehoan ipini dituzte. Hurrengo saltokiek hartu dute parte: Menina, Leiza, Pascua, Malentxo, Gaztelu, Joski, Pakykop, Mar, Alzaga eta Federopticos. Zerrenda honi Mendeluko Heme-Shop gehitu behar zaio.

Ttoparak bizilagunen parte hartzea bultzatu du, eta herritarrei dei egiten die erabili gabe dituzten jaiotzak uzteko, ibilbidea handiagoa izateko.

Elkarteak bi urteko eskarmentua dauka jaiotzen jarduerarekin, baina badirudi hondarribiarrek atsegin handiz hartu dutela. Herritarrak, helduak zein gazteak, erakuslehoetan gelditzen dira dioramak ikusteko asmoaz. Momentuz goiz da, baina elkartearen erronka geroz eta handiagoa da: urtetik urtera erakusketak jaiotzen kopurua handitzea. ✕



# Euskal kultura mundura irekia, Lezon

Urtero bezala, Euskal Liburu eta Disko Azoka egin dute Lezon. Zortzi egunez, euskal kulturaz bustitzeko aukera izan dute lezoarrek. Gaur du azken eguna zabalik. Antolatzaileak pozik azaldu dira izan duten harrerarekin.

**E**uskal kulturaren zaleek ezinbesteko hitzordua dute urtero abenduaren amaieran Lezon. Ohiko moduan, liburuak eta diskoak izan dira egun hauetako protagonista. Lezoarrek ez dute hutsik egin, eta egun hauetako jendearen joan-etorria nabaria izan da Kultur Aretoko Euskal Liburu eta Disko Azokan.

Azken urtetan egin duen modura, Lezoko Udalak herritarren artean banatu dituen bonuak lagungarriak izan dira jendea animatzeko eta euskarazko produktuen erosketa bultzatzeko. 20 euro baino gehiagoko erosketa batengatik seiko deskontua eskuratu dute erosleek.

Aurtengo edizioa ere gizartea pandemian bete-betea sartuta dagoela eraman dute aurrera antolatzaileek. Zailtasunen eta traba guztien gainetik, helbu-

**Gaur du azken eguna azokak. 11:00etatik 13:00etara da zabalik**

rua lortu dute. Lezoarrek erantzun ona eman diote azokari, eta urtero bezala Donibane kalean dagoen Kultur Aretora bertaratu dira, euskarazko liburuen eta diskoen bila.

Diskoak eta liburuak. Umeentzat, gazteentzat eta helduentzat. Narratiba, nobela beltza, eleberririk historikoa, Lezoko euskal toponimia azaltzen duen libu-



Zer ikusteko asko izan da Kultura Aretoko azokan. Salmenta ere ondo joan da. **E. Salazar**

ru bat, egutegiak... Oarso Bidasoko idazleen liburuak edo Euskal Herriko beste txokoetakoak. Liburu dendetako erakusleihoetan dauden nobedadeak, liburu salduenak, edo hain ezagunak ez diren idazle eta liburuak jaso dituzte.

## SALDUENAK

Aretora bertaratu diren pertsonen askotariko tituluak izan dituzte eskura. Horien artean, esaterako, Kirmen Uriberen laugarren eleberria, *Izurdeen aurreko bizitza*. Euskal kondaira batetik abiatuta idatzi du Uribek duela ez asko aurkeztu zuen liburua. Bestetik, oihartzun handia izaten ari den Irati Goikoetxearen *Herririk ez du barkatuko* liburua ere dago bertan. ETaren biktima baten sentimenduak jorratzen ditu idazleak eleberrian.

Arrakasta handia izaten ari den *Miñan* lanak ere bere espazioa du azokan. Amets Arzallus idazle eta bertsolari la-

purarrak Ibrahim Balde konakryarrekin idatzitako liburua salduen artean dago. Liburuak Ibrahim berak migrante moduan bizitzan jasan duena kontatzen du ezinbestekoa bihurtu den kronika moduko batean.

Eskualdeko egileen liburu berriak ezin ziren falta azokan. Bi oreretan lanak nabarmendu dira bereziki salmentetan. Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* edo Lander Garroren *Faith* maiz erosi dituzte bisitariak.

Antolatzaileak pozik daude azokak emandakoarekin. Gaur ditu azken orduak zabalik, 11:00etatik 13:00etara. Pandemia garaian antolatzen den azokaren bigarren edizioa izan da aurtengoa, eta oraindik azterketa sakona edo balorazioa egiteko zain dauden arren, aurtengoak eman duenarekin ikuspegi baikorra dute. Bertara jende asko joan dela adierazi dute, eta salmentak ondo joan direla aldi berean. ✕





Aurten ere Galtzarabordako kiroldegia jasoko ditu koruak. Berezia izango da, ordea, aurtengo ekitaldia. **Ereintza**

# Errenteria-Orereta, Gabonetako kantuen hiriburua

Gabon Abesti Sariketak 75. urteurrena du aurten. Antolatzaileek hitzordu berezia antolatu nahi dute, eta edizio guztietako irabazleak gonbidatu dituzte. Hilaren 26an izango da, Errenteriako kiroldegian.

**G**abonetako kantuek bere lekua hartzen dute beti urtearen amaieran Gipuzkoako herri askotan. Gainontzeko herrietan Gabonetako abestiek protagonismoa hartzen badute, Errenteria-Oreretan zer esanik ez. Oarsoaldeko herririk handiena Gabonetako abestien hiriburu bihurtzen da abenduaren bukaeran.

Aurten hitzordu oso garrantzitsua dute Gabon Abesti Sariketako antola-

tzaileek. Ereintza Elkarteak antolatzen du urtero ekitaldia, baina aurten zerbait berezia egin behar zela argi zuen. Txapelketak bere 75. urteurrena bete du aurten, eta pandemia hainbat ekitaldi zapuzten saiatzeko den garai batean, Ereintza Elkarteak egoerari buelta eman nahi izan dio. Aurrera egin dute Gabonetako kantuen egitasmoarekin, baina aldaketak egin behar izan dituzte.

Aurten ez da txapelketarik egongo.

Horren ordez, gutxienez behin Gabon Abesti Sariketa irabazi duten abesbatzei gonbita luzatu zaie hilaren 26an Galtzarabordako kiroldegira joateko. Txapelketaren Brillantezko Ezteiak ospatzeko formatu berezia prestatu dute.

Josetxo Oliveri elkartekidea dago antolatzaileen artean. Izan ere, hura da Ereintzako koordinatzaileetako bat. Aurtengo ekitaldia bi saiotan banatu dutela jakinarazi du, bata goizez eta bestea arratsaldean.

Goizean *Horra, horra* izena duen kontzertu bat eskainiko dute. Hitzordua 12:30tan izango da, eta 55 urte baino gehiago duten pertsonen abesbatzekin haur abesbatzekin abestuko dute, bakar-





ka zein taldean. Modu honetan, belau-naldi arteko konbinazio anitza lortuko dute antolatzaileek. Ez dira bakarrik egongo. Errenteriako Herri Arte Eskolako txistularien laguntza izango dute abesbatzek, eta horiei pianoa edo perkusioa joko duten musikariak batu behar zaizkie.

### ARRATSALDEAN, JAIALDIA

Abesbatzen jaialdia, ordea, arratsaldean izango da. 18:30tan aurreikusi dute emalndiaren hasiera. Esan bezala, gutxienez behin Gabon Abesti Sariketa irabazi duten abesbatzak gonbidatu dituzte, eta horietako hamar entzuteko aukera izango dute ikusleek. Pertsona helduen abesbatzak dira, horien artean abesbatza federatuak daude, baina baita ere abesbatza herrikoiak.

Izan ere, badira lehiaketa aspaldi irabazi zuten koruak, eta hilaren 26ko emalndia horietako partaideak berriz ere biltzeko aukera izan da askorentzat,

utzia baitzuten askok abesbatzen emaria. Ilusioz bildu dira entseguak egiteko.

Talde bakoitzak abesti bat edo bi abestuko ditu, eta beste talde batzuen laguntza izango dute abesbatzek. EMKEren bandak soinua jarriko dio zoragarria izatea espero duten emanaldiari.

## Bi saiotan banatu dute aurtengo koruen jaialdia, goizekoa eta arratsaldekoa

Abesbatzen bakarkako saioez aparte, abesbatza guztiek bat egingo dute eta une batean elkarrekin abestuko dute, dantza taldeak abestutakoari mugimendua jartzen dion bitartean, horretarako prestatu dituzten koreografiak jendartera zabalduz.

75. urteurrena ospatzeko ekimenak ez dira ekitaldi hauetara mugatuko. Efemeride honetan, 96 orrialdeko liburu bat argitaratu dute *Gabon giroan, abesti sariketan kantari* izenarekin. Irakurleek artikuluak, palmaresa, argazkiak eta beste motatako bitxikeriak topatuko dituzte argitalpen horretan. Liburua doakoa izango da, eta Galtzarabordako kiroldegiko txarteldegian lortzeko aukera izango da. Bertaratutako pertsonak pin bat eskuratzeko aukera izango dute aldi berean.

### ATZERA BEGIRA

Txapelketak aldaketa ugari jasan ditu bere hastapenetatik gaur arte. Oliveriren ustez, oraingo txapelketak ez du zerikusirik lehen antolatzen zenarekin: «Txapelketa beti moldatu izan da momentuko egoera ezberdinetara». Hasieran, herrira begira egiten zen zerbait zela gogorarazi du Ereintzako kideak. Ondoren, 1970ko hamarkadan, txapelketak eskualde osoa hartu zuen; eta, azkenik, 1990ko hamarkadan, Gipuzkoa osora zabaldu zuten Gabonetako kantuen egitasmoa.

Ereintzako kideak itxaropentsu ikusten du sariketaren etorkizuna. Txapelketan parte hartzen duten abesbatzen maila goraiatu du, eta badu aurrera begirako amets bat: txapelketak Gipuzkoatik Euskal Herrira jauzia egitea lortzea.

Beraz, txapelketa garai berrietara moldatzeko bidean ideia asko landu dituzte Ereintzakoek. Batzuetan, bere kabuz denborak horrela eskatzen zuelako; eta

## Datozen edizioetarako Euskal Herriko koruak nahi dituzte Erreterian

beste batzuetan, aldiz, egoerak behar izaten zuelako. Iaz, adibidez, mundu bertualean sartu ziren: pandemia dela eta, ezin izan zuten txapelketa ohiko moduan antolatu, beraz, azken teknologien bitartez eutsi zioten iazko edizioari.

Aurten, egoera antzekoa zenez, formatua aldatzeko «eskuak libre» izan dituztela onartu du Oliverik. Hurrengo urterako ohiko formatua berreskuratu nahi dute, ordea. Bien bitartean, txapelketaren zaleek badute zer ospatu hilaren 26an: Gabon Abesti Sariketako Brillantezko Ezteiak. ✕

**OPARITZEKO:  
3 HILABETEKO ABONUA  
+ JARDUERA**  
(MATRIKULA DE,  
ESKUMUTURREKOA  
+ OPARIA)

\*2021LEKO ABENDUAREN 15TEK  
2022KO URTARRILAREN 5ERA

**OPARITU BIZI KALITATEA**

Euskadiko kirol tozarieta berritzailea



## AGENDA

## HILAK 24, OSTIRALA

## Musika

**Lezo.** 16:30ean, Aiton Bordatik abiatuta, Aiton Borda abesbatzaren eta Tomas Garbizu Musika Eskolako trikitilari taldearen kalejira.

## Bestelakoak

**Hondarribia.** Hilaren 31ra arte, 09:30, 11:30 eta 13:30ean; eta 16:00, 18:00, 20:00 eta 22:00etan, Biteri kalean (Jostaldiren parean) Caravana Scape Room.

**Oiartzun.** Goiz osoan zehar, herriko auzoetatik, Gabon kantak abestera aterako dira tokian tokiko taldeak.

**Lezo.** 11:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 19:00etara, Kultura Aretoko Euskal Liburu eta Disko Azoka zabalik. Azken eguna da.

**Errenteria-Orereta.** 11:30ean, Beraun auzoan, bertako abesbatza herrikoien kalejira.

**Hondarribia.** 11:30ean, Santiago kalean, Haur Olentzero Jaialdia.

**Lezo.** 12:00etan, Lezo Herri Eskolako patiotik, *Hator hator kantatzera.*

**Irun.** 17:00etan, Uranzu pilotalekuaren ondoko karpan, erraldoien tailerra.

**Oiartzun.** 17:30ean, Done Eztebe plazan, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

**Errenteria-Orereta.** 18:00etan, Agustinetako auzo elkartearen, Olentzerori ongietorria.

**Pasaia.** 18:00etan, San Pedron, Olentzerok eta Mari Domingik gustuko dituzten jakiak bilduko dituzte haurrek pista jokoaren bidez. Ondoren, jaki ho-



## ERAKUSKETA ERRETERIA

## Lau Haizetararem Olentzero eta Mari Domingik, 20 urte

Errenteria-Oreretako Lau Haizetara Euskaltzaleon Topagunearen Olentzero eta Mari Domingiren desfileak 20 urte bete ditu aurtan. Horren harira, hilaren 31ra arte erakusketa antolatu dute Xenpelar Etxean. Argazkiak eta bestelakoak daude bertan. Arratsalde izango da zabalik.

riek Jokin Amundarain etxebizitza tutelatuetako kideei emango dizkiete.

**Irun.** 19:00etan, San Juan plazan, Olentzero eta Eguberri kantuen Jaialdia.

**Pasaia.** 19:00etan, Trintxerpetik zehar, txistulariak Olentzerorekin.

**Irun.** Hilaren 31ra arte, Zabaltza plazan, Eguberrietako Azoka.

**Irun.** Urtarrilaren 9ra arte, Sargia parkean, Gebonetako herrixka jarriko dute.

**Irun.** Urtarrilaren 9ra arte, txirrista erral-

doia Pio XII. plazan. Ordutegiak eta prezioak ikusteko joan [irun.org](http://irun.org) webgunera.

**Irun.** Urtarrilaren 3ra arte, Eguberrietako bola erraldoia Luis Marianoko Turismo Bulegoaren ondoan jarrita.

**Irun.** Urtarrilaren 4ra arte, Palmera Montero gunean, trenen maketen erakusketa.

**Irun.** Urtarrilaren 16ra arte, Ficoban 1.200 metro koadroko izotz pista jarriko dute. Kontsultatu ordutegiak eta prezioak [irun.org](http://irun.org) webgunean.

## HILAK 25, LARUNBATA

## Musika

**Hondarribia.** 08:00etatik, Alde Zaharrean eta Portua auzoan, Hondarribiko Txistu Taldearen alborada.

## Bestelakoak

**Lezo.** 11:30etik 12:00etara, Lezo Herri Eskolako patioan, *Badator Olentzero* jarduera.

## HILAK 26, IGANDEA

## Musika

**Hondarribia.** 08:00etatik, Alde Zaharrean eta Amute-Kostan, Hondarribiko Txistu Taldearen alborada.

**Errenteria-Orereta.** 12:00etan, Galtzarabardako kiroldegian, *Horra horra* belaunaldi arteko koruen kontzertuak.

**Pasaia.** 13:00etan, Donibaneko Santiago plazan, Itsas Mendi txistulari taldearen kontzertua.

**Errenteria-Orereta.** 16:00etan eta 19:00etan, Niessenen, Disney Show.

**Euskaraz Zara,  
euskaraz gara.**

**Lezoko Udala  
euskararekin da!**

**Errenteria-Oreeta.** 18:30ean, Galtzarabordako kiroldogian, Ereintzaren 75. Gabonetako Koruen Sariketaren saio berezia. 2 euro.

#### Antzerkia

**Hondarribia.** 17:00etan, Itsas Etxea auditorioan, Borobil Teatroyen *Narciso* antzerkia. 4 euro.

#### Dantza

**Oiartzun.** 12:00etan, Done Eztebe plazan, dantza jauziak.

#### Bestelakoak

**Irun.** 11:00etan, Oiasso Museoa hasita, Ama Xantalen ermitara bisita gidatua.

**Oiartzun.** 18:28an, udaletxean, herriko gazte sortzaileen saioa: Xanisteban Egun Artistikoa. 5 euro (txokolategian).

### HILAK 27, ASTELEHENA

#### Antzerkia

**Oiartzun.** 10:00etan hasita, Karaz 4 kaleko lokalean, *Metamorfosi II* izeneko tailerra Xabi Lopez *Jabato*-ren eskutik. Antzerki fisiko laborategia da. Hilaren 28, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 3, 4 eta 5ean errepikatuko dituzte saioak ordu eta toki berean.

**Hondarribia.** 17:00etan, Itsas Etxea auditorioan, Logela Multimediaren *Tartalo* antzerkia haurrentzat. 4 euro.

#### Bestelakoak

**Errenteria-Oreeta.** Goizez eta arratsaldean, herriko ludoteka eta gaztelekuetan jarduerak daude hilaren 5era arte. Horiek ikusteko: [herribizia.eus](http://herribizia.eus).

**Errenteria-Oreeta.** 09:00etan, Lekuonan, GIF elementuak egiteko tailerra.

**Hondarribia.** 09:30etik 13:30era, Soroetako ikastetxean, Gaztetek teknologia tailerrak 8-12 adin tarteko haurrentzat.

**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan eta 19:00etan, Niessen, Disney Show.

**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan, Lekuonan, gai berrerrabilgarriekin musika tresnak egiteko tailerra.

**Pasaia.** 16:00etan, Antxoko Kultur



### AISIA OIARTZUN

## Abaraxkarekin, Gabon gozoak

Oiartzungo Abaraxka Udal Ludotekak jarduera asko antolatu ditu hilaren 27tik urtarrilaren 5era arte: tailerrak, mendi buelta, Tren Berdean irteera (irudian), braille hizkuntza ezagutzeko saioa, Oiartzungo ondarearen gaineko jarduera... Horien guztien berri izateko, joan [oarsoalde.hitza.eus](http://oarsoalde.hitza.eus) webgunera.

Etxean, Trintxerpeko Karmengo Aman, San Pedroko Udal Aretoa eta Donibaneko ludotekan, haurrentzako jolasak eta Gabon apaingarriak egiteko tailerrak.

**Irun.** 17:00etan, Uranzu pilotalekuaren ondoko karpan, serigrafia saioa.

**Pasaia.** 17:30ean, Donibaneko Juanba Berasategi aretoa, Hodei magoaren *Ezinezkoaren logika* ikuskizuna.

**Hondarribia.** 18:00etan, Itsas Etxearen kanpoaldean, Gabonaldia Festibala. Herriko dendek emandako gaiekin hainbat zozketa egingo dira.

### HILAK 28, ASTEARTEA

#### Musika

**Errenteria-Oreeta.** 18:00etan, Fatimako elizan, Musikart eta Kontari koruen elkartasun kontzertua.

**Hondarribia.** 19:00etan, Itsas Etxea auditorioan, gospel kontzertua Black Pearls of Gospel taldearekin. 5 euro.

**Errenteria-Oreeta.** 20:00etan, Fatimako elizan, Dizdizka eta Landarbaso koruen elkartasun kontzertua.

#### Antzerkia

**Irun.** 19:00etan, Amaia KZn, Clownic taldearen *Hotel flamingo* antzezlan, Tricycle konpainiaren omenezkoa.

#### Bestelakoak

**Hondarribia.** 11:00etatik 13:30era, eta 17:00etatik 19:30era, Jostaldi pilotalekuan, haur parkea.

**Irun.** 11:00etan, Oiasso Museoa, tailerra Oiasso garaiko mosaikoak egiteko (6-12 urtekoentzat).

**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan eta 19:00etan, Niessen, Disney Show.

**Pasaia.** 16:00etan, Antxoko Kultur Etxean, Trintxerpeko Karmengo Aman, San Pedroko Udal Aretoa eta Donibaneko ludotekan, haurrentzako jolasak eta tailerrak.

**Hondarribia.** 18:00etan, Puntaleko gaztelekuan, Gabonetako ekintza bereziak.

### HILAK 29, ASTEAZKENA

#### Musika

**Irun.** 19:00etan, rock ikuskizun ibiltaria hiriko kaleetatik.

#### Antzerkia

**Irun.** 17:00etan, Amaia KZn, Txirri, Mirri eta Txiribitonen ikuskizuna.

#### Dantza

**Errenteria-Oreeta.** 19:00etan, Merkatuzarren, *Nunzira* dantza ikuskizuna.

#### Bestelakoak

**Irun.** 11:00etan, Oiasso Museoa, antzerki maskarak sortzeko eskulan saioa (8-12 adin bitartekoentzat).

**Hondarribia.** 11:30ean, Zuloaga Etxea liburutegian, Maite Frankoren eskutik ipuin kontaketa saioa.



**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan eta 19:00etan, Niessenen, Disney Show.

**Pasaia.** 16:00etan, Antxoko Kultur Etxean, Trintxerpeko Karmengo Aman, San Pedroko Udal Aretoan eta Donibane-ko ludotekan, haurrentzako jolasak eta tailerrak.

**Pasaia.** 17:45ean, Trintxerpeko Karmengo Aman, Eriz magoaren saioa *Auskalo* ikuskizunarekin.

**Hondarribia.** 18:00etan, Puntaleko gaztelekuan, Gabonetako ekintza bereziak.

**Pasaia.** 18:00etan, Antxoko Kultur Etxean, Tomaxen Abenturak pailazo taldearen *Adi, grabatzen, ekin* ikuskizuna.

**Pasaia.** 18:00etan, San Pedroko Udal Aretoan, Magiklown mago pailazoen saioa.

#### Ikus-entzunezkoak

**Hondarribia.** 19:00etan, Itsas Etxean, *Nora* filmaren emanaldia. 4 euro.

### HILAK 30, OSTEGUNA

#### Dantza

**Irun.** 17:30etik 20:30era, Irungo dantza akademietako ikasleek ikuskizunak emango dituzte hainbat auzotan.

#### Musika

**Irun.** 18:00etan, Ficobako izotz pistan, Oihan Vega Djaren saioa.

#### Bestelakoak

**Hondarribia.** 09:30etik 13:30era, Sorotako ikastetxean, Gaztetek teknologia tailerrak 8-12 adin tarteko haurrentzat.

**Irun.** 11:00etan, Oiasso Museoa, arkeologia tailerra (8-12 adin tartekoentzat).

**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan eta 19:00etan, Niessenen, Disney Show.

**Hondarribia.** 16:00etan, Zuloaga Etxea liburutegian, Scape Room saioa. Liburutegiaren ohiko zerbitzua etengo dute.

**Hondarribia.** 18:00etan, Puntaleko gaztelekuan, Gabonetako ekintzak

#### Antzerkia

**Hondarribia.** 17:00etan, Itsas Etxean, Gorakada Teatroyen *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* antzerkia. 4 euro.

### HILAK 31, OSTIRALA

#### Musika

**Lezo.** 18:30ean, Musika Eskolatik abiatuta, Urtezaharreko koplak.

#### Bestelakoak

**Lezo.** 11:00etan, Gurutze Santuaren plazan, haurren San Silbestre lasterketa.

**Hondarribia.** 16:30ean, San Pedro kaletik abiatuta, San Silbestre lasterketa. Izena emateko: *kirolprobak.com*.

**Errenteria-Oreeta.** 17:00etan, Gamon Zumarditik abiatuta, San Silbestre lasterketa. Izena emateko joan *Rockt-hesport* webgunera. 12 euro.

### URTARRILAK 2, IGANDEA

#### Bestelakoak

**Oiartzun.** 10:30ean (haurrak) eta 11:00etan (helduak), Done Eztebe plaza-tik, Joanes Etxera lasterketa. Izen ematea Herrikrosaren webgunean.

### URTARRILAK 3, ASTELEHENA

#### Bestelakoak

**Pasaia.** 11:00etatik 13:00etara, herriko liburutegi batean (izen emateen arabera erabakiko dute non), *Sar dadila kalabazan* sormen tailerra 8-16 adin tarteko gazteentzat, Eider Perez Adeletxen eskutik. Urtarrilaren 4an egingo dute bigarren saioa.

**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan (8-10 urte) eta 17:30ean (9-11 urte) arkitek-tura tailerra Lekuonan.

**Irun.** Eguberrietako bola erraldoia jarriko dute San Migel auzoan.

### URTARRILAK 4, ASTEARTEA

#### Bestelakoak

**Irun.** 11:00etan, Oiasso Museoa, Oiasso garaiko mosaikoak egiteko tailerra (6-12 adin tartekoentzat).

**Hondarribia.** 17:00-18:00 tartean Amute eta Mendelu auzoetan, eta 19:00-20:00 tartean Alde Zaharrean eta Portuan, Errege Magoaren postariak eskutitzen zain izango dira.

**Irun.** 17:00etan, Uranzu pilotalekuaren ondoko karpan, ginkana eta zozketa Trikuharri elkartearen eskutik.

**Errenteria-Oreeta.** 17:00ean, Lekuonan, txotxongilo tailerra 5-10 adin tartekoentzat.

**Irun.** Eguberrietako bola erraldoia jarriko dute San Juan plazan.

### URTARRILAK 5, ASTEAZKENA

#### Bestelakoak

**Errenteria-Oreeta.** 10:00etan, Lekuonan, kartelgintza tailerra.

**Irun.** 11:00etan, Oiasso Museoa, antzerki maskarak egiteko eskulan saioa (8-12 adin tartekoentzat).

**Lezo.** 12:00etan, Bekoerrotako kiroldegian, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Kuikui* ikuskizuna.

**Hondarribia.** 15:00etatik 20:15era, Jostaldin, Errege Magoen harrera. 300 gonbidapen daude alde aurreko erre-  
serbarekin.

**Errenteria-Oreeta.** 16:00etan, Merkatuzarren, Errege Magoei harrera egingo diete.

## CIFP DON BOSCO LHII



**donbosco**  
2007

**DON BOSCO ALDEA  
LAN HIRIA**  
20100 Errenteria  
Tel.: 943 510 450  
donbosco@donbosco.eus  
www.donbosco.eus

**PAPER KALEA, 1**  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 672 900










**Irun.** 18:00etan, tren geltokian, Errege Magoen etorrera. Ondoren desfilea.

**Lezo.** 19:00etan, Lezo Herri Eskolako patioan, Errege Magoen harrera.

## URTARRILAK 6, OSTEGUNA

### Musika

**Errenteria-Orereta.** 12:30ean, Koldo Mitxelenako jolastoki estalian, EMKE-ren bandaren urte berriko kontzertua.

## HITZA-REN OHARRA

**COVID-19a.** Ekitaldien zerrenda hau herrietako eragileengandik jaso du HITZA-k. Zenbaki hau inprentara bidaltzerako orduan hainbat jarduera konfirmatu gabe zeudelako, ez daude bertan. Hala ere, zerrenda honetako zenbait jardueratan aldatetak izan daitezke unean uneko osasun egoeratik.

ETB MEDIA



## ARTE ESZENIKOAK HONDARRIBIA

### 'Goazen!'-en saio bikoitza Itsas Etxean

ETB1eko *Goazen!* telesailaren antzokietarako bertsioa berriz ere Hondarribira iritsiko da, urtarrilaren 6an. Bi saio egingo dituzte, 12:30ean eta 16:00etan. Sarrrerak Arma Plazan erosi ahalko dira (10 euro) hilaren 26 eta 27an bertakoentzat, eta soberan baleude Interneten lortzeko aukera izango dute bestek.

# HAZI, HEZI ETA BIZI EUSKARAZ

Tel.: 943 514 804  
info@lezoherrieskola.eus  
www.lezoherrieskola.eus



## LEZO INSTITUTUA

Tel.: 943 89 92 81  
lezoinstitutua.hezkuntza.net  
institutua@lezoinstitutua.net

## Lezo Herri Eskola





Kano Mandamingi eta Olan  
Aurtengoa urte aitzakoa  
pukunaka duzue ga  
gara harpidetza

ai harpidetza  
nora harpidetza familia eta lagunak  
duzue jarraitzea nahiko nuke.  
Eta gurasuentzat, sorpresa bezala,  
OARSO BIDASOKO HITZAREN harpidetza

Eta gurasuentzat, sorpresa bezala,  
OARSO BIDASOKO HITZAREN harpidetza



**EGUBERRI  
HAUETAN**



Eguberri hauetan urtebeteko **Oarso-Bidasoko HITZAREN harpidetza bat oparitu** dezakezu\*. Horretarako zatoz HITZAREN bulegora (Irun kalea 8, behea, Errenteria-Oregeta) eta opari kutxa bat emango dizugu nahi duzunari oparitzeko. Informazio gehiago: [oarsobidasoa@hitza.eus](mailto:oarsobidasoa@hitza.eus) helbidera idatzita edo 688 77 07 52 zenbakira deituta.

(\*) urteko harpidetzaren kuota 80 eurokoa da.